


6. kapitulua

Estrategiaren gidalerroak



6.1. Hitzaurrea

Lehenago adierazi den moduan, kapitulu honetan bildu dira Estrategiaren gidalerroak eta gomendioak, erakundeei eta gainerako eragile interesdunei orientazioa eskaintzeko helburua betez, hartara bakardadeak prebenitzeko eta jorratzeko inizatibak horien arabera gara ditzaten, Estrategiaren esparru kontzeptualaren barruan. Gidalerro hauek, eta Estrategiaren esparru kontzeptualak ere, eragile bakoitzari esleitutako konpromiso eta proiektu espezifikoak jasotzen dituzten bi urteko jarduketaren planak prestatzeko oinarri gisa balioko dute, helburu hauetarako:

- Estrategiaren ikuspegia eta xedea errealitate bihurtzeko erakundeen aldetik konpromiso espezifikoak ezartzea;
- Antzeman diren behar zehatzei erantzuteko gaitasuna duten proiektu bultzatzaile edo eraldatzaileak garatzea, abian diren jarduketan ehuna zabaltzeko aukera ematen dutenak eta bakardadeen arazoa berrikuntzaren ikuspuntutik jorratzen dutenak.

Horretarako, eta aurretiaz adierazi denaren ildotik, Estrategia, funtsean hiru elementu nagusiren inguruan egituratzen da:

- **Gomendioak** gidalerro eta orientazio generikoak dira eta haien helburua da Estrategiarekin bat egin duten eragile guztiei gida bat eskaintzea aurrerago ezarriko dituzten neurri eta jarduketaren potentzialak identifikatu ahal izateko. Gomendioak,

konpromisoak bezala, gorago adierazi diren lau ibilbideen inguruan artikulatzen dira, ez dira derrigorrezkoak eta zenbait erakunde motari eta administrazioko mailari zuzendutakoak dira, modu ez espezifiko batean.

Lehenago aipatu den moduan ere, borondatezkoak izateak ez du esan nahi Estrategia loteslea ez denik: hau da, Estrategiarekin bat egiten duten erakunde guztiek praktikan jarri beharko dituzte gidalerro edo gomendio hauetako zenbait –egokitzat jotzen dituztenak edo beren eskumen eta gaitasunetara hoberen moldatzen direnak– eta horien berri eman beharko dute Estrategiaren jarraipen prozesuetan. Logikoa denez, erakundeek ez dituzte gomendio guztiak bete beharko, baina espero dugu gomendio guztiak kontuan hartu edo aplikatuko dituela gutxienez erakunde batek.

- **Konpromisoak** gomendioen desberdinak dira zehaztasun maila handiagoa dutelako eta, batez ere, Estrategiarekin bat egin duen erakunde bakoitzak modu espezifikoan onartzen dituelako. Beraz, konpromiso bakoitza erakunde batekin edo zenbaitekin lotuta dago eta erakunde horiengandik espero da konpromiso horiek bete ditzaten Estrategiaren iraunaldian zehar. Aurrerago azaldu den moduan, zenbait konpromiso gomendio generiko moduan ere planteatu daitezke (baina gomendio guztiak ez dira konpromisoetan islatzen) eta espero da Estrategiarekin bat egiten duten erakunde guztiek konpromiso zehatz bat edo

gehiago onartuko dituztela.

Ibilbideen ikuspuntutik, konpromisoak sare eta gobernantzaren ibilbidearekin, elkarrizketa publikoaren ibilbidearekin eta ezagutzaren zabaltze eta berritze edo kudeaketaren ibilbidearekin lotuta egon ohi dira.

- **Proiektu bultzatzaileak** bereizten dira konpromisoek baino zehaztasun maila eta irismen handiagoak dituztelako, eta izaera batik bat esperimental eta berritzailea dutelako. Zentzu horretan, proiektu bultzatzaileak nolabaiteko garrantzia duten jarduerak dira (esku hartze proiektu berriak, esaterako), behar jakinen ingurukoak, erreferentziako proiektu gisa hautatu direnak eta Gipuzkoako bakardadeen fenomenoari erantzuteko modua eraldatzeko potentziala dutenak; beraz, Estrategiaren berrikuntza definitu dezaketen proiektu estrategiko nagusiak dira hauek. Baliteke proiektu bultzatzaile hauetako zenbait planteatutako gomendioen bat gauzatzeko pentsatuak egotea eta, bestalde, Estrategian parte hartzen duten erakunde guztiek ez dute proiektu bultzatzaile hauek garatzeko konpromisoa onartzeko beharrik. Gainera, proiektu bultzatzaileen kopurua mugatua izango da.

Ibilbideei dagokienez, proiektu bultzatzaileak berrikuntza eta zabaltzearen ingurukoak dira batez ere, baina ez eskusiban.

Bestalde, jarduketa-planen aldian, gerora garatutako beste ustekabeko jarduketak egon daitezke: hasierako Jarduketa Planean jasota ez dauden eta haren iraunaldian zehar planteatu edo garatu daitezkeen neurriak, ekintzak edo proiektuak, eta beraz, Jarduketa Planen jarraipen eta ebaluazio prozesuetan jasoko dira. Ustekabeko jarduketak jasotzeak esan nahi du erakundeek Estrategiarekin bat egin dezaketela jarduketa planak prestatzeko orduan konpromiso zehatzik edo proiektu jakinik beren gain hartu dutela jakinarazi ez badute ere, betiere jarraipen eta ebaluazio prozesuetan Estrategiako gidalerro bat edo batzuk jarraitu eta betetzeko helburuarekin garatu dituzten jarduketan berri ematen badute.

Garrantzitsua da kontuan hartzea hiru elementu hauen arteko aldea arbitrarioa dela, neurri batean, eta gomendioak, konpromisoak eta proiektu bultzatzaileak ez daudela halabeharrez inizatiba desberdinekin lotuta: jarduketa bera gomendio edo gidalerro generiko moduan planteatu daiteke, baina baita konpromiso zehatz gisa ere, erakunde jakin batek onartuko duena eta baita, zenbait kasutan, proiektu bultzatzaile gisa ere. Beraz, gomendioen, konpromisoen eta proiektu bultzatzaileen arteko desberdintasunak dira, batik bat, erakundeek horiek garatzeko hartzen duten konpromiso maila, zehaztasun maila, horiek oro har onartzen dituzten erakunde motak eta, azkenik, duten izaera berritzailea.

6.2. Gidalerroak eta gomendioak


Aurreko puntuan adierazitakoa abiapuntu hartuta, epigrafe honetan jaso da Hariak Estrategiaren gidalerro eta gomendioen esparrua. Azaldu den moduan, gorago ageri diren lau ibilbideen inguruan artikulatzen da eta gidalerro hauek egikaritzeko erantzukizuna ez zaio erakunde zehatz bati esleitzen. Hala ere, adierazi egiten da zein erakunde mota diren egokienak gomendio hauek egikaritzeko.

Sailkapen hau ez da oso sistematikoa eta neurri batean arbitrarioa da, baina abantaila moduan du bakardadeak prebenitu eta jorrazteko garrantzitsutzat jotzen diren eragile guztiak barne hartzen dituela eta, bestalde, xede eta ezaugarri desberdinak dituzten erakundeak bereizteko aukera ematen duela. Edonola ere, beherago aurki daitezkeen koadroak erreferentzia moduan eskaintzen dira, gomendio hauetako bakoitza garatzearen ardura beren gain har dezaketen erakundeak identifikatzeko orduan. Dena den, logikoa denez, Estrategiarekin bat egiten duen erakundeetako bakoitzak erabaki ahalko du zein gomendio jarraitu nahi dituen edo ahal duen, edo zeintzuk ez, bere autonomiaren esparru barruan.

lido horretan, adierazi behar da gomendio bakoitzean adierazi diren erakunde guztiek ez dutela zertan izan kasu guztietan gomendio horien bultzatzaileak; aitzitik, kasu jakin batzuetan, aipatutako erakundeak inplementazioan laguntzaile izan daitezke. Hau da, inplikaturako erakunde batzuk gomendio baten bultzatzaileak izan daitezke, eta, beste batzuk, gomendio hori garatzen laguntzen duten erakundeak.

Horretarako, "erakunde interesdunen" talde hauen arabera sailkatu dira erakundeak:

- Eusko Jaurlaritz (sailak, erakundeak edo programak, hala nola Berdintasun Saila, Justizia eta Gizarte Politikak Saila, Osasun Saila, Hezkuntza Saila edo bestelako erakundeak, besteak beste, Emakunde edo Euskadi Lagunkoia programa);
- Gipuzkoako Foru Aldundia (foru zerbitzu edo departamentuak, barne hartuta ere, kasu honetan, Gizarte Zerbitzuak zein zerbitzu kulturalak, kirol zerbitzuak, berdintasun zerbitzuak, haurtzaro eta gaztaro zerbitzuak, etab.);
- Udalak (udal zerbitzu edo departamentuak, barne hartuta gizarte zerbitzuak zein zerbitzu kulturalak, kirol zerbitzuak, etxebizitza zerbitzuak, berdintasun zerbitzuak, haurtzaro eta gaztaro zerbitzuak, alkatetza, etab.);
- Osakidetza (Osasun Laguntza emateko Zuzendaritza, Gipuzkoako Erakunde Sanitario Integratuak -ESI- eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea);
- Erakunde zibikoak (kulturalak, kirolaren ingurukoak eta aisialdikoak), ekintza sozialeko hirugarren sektoreko erakundeak eta beste eragile komunitario batzuk;

- 
- Ikastetxeak eta hezkuntza administrazioa;
 - Enpresak, batez ere toki eremuko enpresa txiki eta ertainak;

Gomendioen jatorriari dagokionez, iturri hauetatik jasotzen dira:

- Oinarrien Dokumentuan jasotako jarduketaren moten identifikazioa;
- Gipuzkoako udalerrietan garatutako eta partaidetza prozesuan zehar jasotako jarduketak, bai eta prozesu horretan identifikatutako erronkak eta beharrak ere;
- Gure inguruko herrialdeetan garatutako estrategien eta jarduketaren eraginkortasunaren berrikusketa.

6.2.1.1. ibilbide estrategikoa. Sarea eta gobernantza

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
1. Foro edo erakunde bat sortzea eta indartzea, Hariak Estrategiaren bultzadaz eta jarraipenaz arduratuko dena, bai eta Gipuzkoako bakardadeekin zerikusia duenaren gobernantza bultzatzeaz arduratuko dena ere	Adinberri Fundazioa GFaren Gizarte Politikako Departamentua
2. Estrategian aurreikusitako ekimenetarako dinamizazio-, jarraipen- eta laguntza tekniko-mekanismoak diseinatzea eta abian jartzea, bai eta horien ebaluazioa ere	Adinberri Fundazioa GFaren Gizarte Politikako Departamentua
3. Toki edo eskualde mailan elkarrizketarako foroak, mahaiak eta bestelako espazioak ezartzea koordinazioa eta lankidetzaz sustatzeko lurralde eta udalerriz eremuan.	Udalak Gipuzkoako ESlak Hirugarren sektoreko erakundeak
4. Toki edo erakunde mailan bakardadeei aurre egiteko tokiko estrategiak garatzea, helburu eta lehentasun erkideak ezartzen dituztenak eta eragile guztien artikulazioa ahalbidetzen dutenak	Udalak Gipuzkoako ESlak Hirugarren sektoreko erakundeak
5. Finantzaketa bide espezifikoak sortzea bakardadearen aurkako jarduketak garatzeko, erakunde publikoen laguntza deialdien esparruan (une honetan indarrean daudenak edo sortzen diren berriak).	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) Foru Aldundia Udalak
6. Boluntarioen funts espezifikoak sortzea boluntarioen sareek bakardadeak jorratzea helburu duten jarduketak eta programak garatu eta sustatzeko.	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) Foru Aldundia Udalak
7. Lurralde mailan erakundeen sare bat sortzea bakardadeei aurre egiteko erronkak batera lantzeko eta horien inguruan hausnartzeko, Administrazio Publikoaren laguntzarekin	Hirugarren sektoreko erakundeak

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
<p>8. Oinarri komunitarioko zaintza eta laguntza plataformak edo ekosistemak lurraldean indartu eta zabaltzea, udalekin eta toki eragileekin batera, lankidetzako gobernantzarako sareak sortu eta hurbileko arreta bultzatzeko helburuarekin.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Foru Aldundia Udalak Gipuzkoako ESlak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>9. Lankidetzarako eta/edo isolamendu edo bakardade egoerak antzeman eta bideratzeko tresnak sortzeko protokoloak ezartzea gizarte zerbitzuetako departamentuen, hirugarren sektoreko erakundeen eta beste zerbitzu batzuen artean (udal segurtasun kidegoak, kultur etxeak, suhiltzaile zerbitzua, etab.).</p>	<p>Osasun Saila (EJ) Osakidetza Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>10. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak Hariak Estrategiaren diseinua eta hedapena datozen urteetan garatu beharreko jarduera estrategikoen barruan kontuan hartzea.</p>	<p>GFaren Gizarte Politikako Departamentua</p>
<p>11. Boluntarioen gaikuntza eta koordinazio planak prestatzea bakardadeak jorratzeko jarduketak garatzeko.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>12. Gipuzkoan abian diren bakardadeari aurre egiteko jarduketan eta eragileen mapa edo direktorio interaktiboa prestatzea, zein udalerritan garatzen ari diren adierazita eta gainerako eragileei identifikazioa ahalbidetuta.</p>	<p>Adinberri Fundazioa GFaren Gizarte Politikako Departamentua</p>
<p>13. Adinekoei zuzendutako komunitateko baliabideak aurkitzeko bilatzaile edo mapak aktiboak dituzten gailu elektronikoetarako aplikazioak garatzea eta herritar guztien eskura jartzea.</p>	<p>Foru Aldundia Udalak</p>

6.2.2.2. ibilbide estrategikoa. Elkarrizketa publikoa

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
<p>1. Elkarrizketa publikorako plan edo esparru bat prestatu eta definitzea, bere helburu eta ildo nagusiekin, lortu nahi den elkarrizketa publikoak eduki eta egitura erkideak izan ditzan sarea osatzen duten eragile guztien artean.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) eta/edo Osakidetza Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>2. Eskuliburuak, jardunbide egokien gidak eta bestelako dibulgazio materialak prestatzea bakardadeen arloko esku hartzearen inguruan, bai oro har eta baita bakardade arrisku handiagoa duten talde edo egoera zehatzei dagokienez ere.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) eta/edo Osakidetza Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>3. Hitzaldiak, jardunaldiak eta bakardade egoerak aztertzeko ekitaldi espezifikoak antolatzea eta bakardadeak prebenitu eta jorratzeko jarduketara eraginkorrenak ezagutzera ematea.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) eta/edo Osakidetza Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>
<p>4. Bakardadeen prebentzio eta jorratzearen gaia erakundeen gizarte sareetako komunikazio estrategietan txertatzea.</p>	<p>Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) eta/edo Osakidetza Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak</p>

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
5. Kolektibo espezifikoei zuzendutako (gazte eta nerabeak, erretiratu berriak, etab.) bakardadeen fenomenoari buruzko sentsibilizazio eta prestakuntza lantegiak diseinatu eta egikaritzea.	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) eta/edo Osakidetza Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
6. Sentsibilizazio kanpaina espezifikoak egitea ohiko komunikabideetan (egunkariak, irratia eta telebista).	Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
7. Erakundeetan komunikazio plan espezifikoak prestatzea bakardadeen arloko hedatze eta sentsibilizazio jardueren inguruan.	Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
8. Nerabe eta gazteek erabiltzeko moduko lineako aplikazioak garatzea bakardadea prebenitu eta jorratzeko.	Foru Aldundia Adinberri Fundazioa Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
9. Bakardadeen antzemate gaitasuna eta esku hartzea hobetzeko prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzea, komunitate esparruan lan egiten duten profesionalen zuzendutakoak (hezitzaileak, osasun arloko profesionalak, gizarte zerbitzuetako profesionalak, kultur etxeetako eta kiroldegietako langileak, farmaziak, saltoki txikietako profesionalak, etab.).	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Gipuzkoako ESlak eta Osasun Mentaleko Sarea Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak
10. Enpresaren esparrurako esku hartze, sentsibilizazio eta prestakuntza eredu bat diseinatzea, hari esker enpresek bakardadearekin eta bizitzako trantsizio garrantzitsuekin lotutako jarduketak beren lantaldeen kudeaketan txertatu ditzaten.	Enpresak Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
11. Komunitate bitartekaritzako programak sustatzea eta dibertsitate eta bizikidetzaren planak prestatzea, herriko, auzoko edo komunitateko gatazkak prebenitu eta horietan esku hartzeko, aldi berean kultura aniztasuna, berdintasuna, bizikidetzaren balioak eta abar landuz eta, espezifikoki, bakardadeak.	Enpresak Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
12. Zentro, zerbitzu eta programen kudeaketan erabiltzaileen partaidetza sustatzeko jardunbide egokien eskuliburuak eta gidak prestatu eta zabaltzea, erabiltzaileek duten bakardadeak jorrazteko egiten diren ekintzekiko konpromisoa eta inplikazioa areagotze aldera.	Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
13. Komunikazio eta sentsibilizazio programa espezifikoak sortu eta mantentzea, isolamendu edo bakardade egoeran dauden pertsonen partaidetzarekin, ohiko komunikabideetan (irradi eta telebista programak) edo beste beste kanal batzuetan (aldian behingo argazkilaritza erakusketak edo kaleko antzerkiak, esaterako).	Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
14. Hausnarketa Etikarako Taldeak sortzea etikaren ardatzetik orientatu ahal izateko bakardade egoerak prebenitzeko, arintzeko edo alderantzeko jarduketak eta esku hartzeak.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
15. Jardunbide egokien programak diseinatzea, formatu egokienak baliatuz (mintegiak, argitalpenak, aplikazio interaktiboak...) ezagutzaren transferentzia eta jarduketan eskalatzea errazteko helburuarekin.	Foru Aldundia Udalak
16. Bakardadeak prebenitzeko eta jorrazteko programek izan behar dituzten ezaugarrien inguruko literaturaren emaitzak jasotzen dituen gida edo eskuliburu bat prestatzea.	Adinberri Fundazioa
17. Komunikabideetako profesionalak bakardadeen gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta prestatzeko programa eta lantegi espezifikoak garatzea.	Adinberri Fundazioa

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
18. Lehen eta bigarren hezkuntzaren curriculumean txertatzea gizarte harremanen balioari eta bakardadearen inpaktuari buruzko orientazioak.	Ikastetxeak eta hezkuntza administrazioa
19. Udalerrietako ahalduntze eskoletan bakardadeei buruzko ikastaro espezifikoak eta bakardadeei aurre egiteko gaikuntza lantegiak sartzea.	Udalak
20. Hurbileko merkataritza establezimenduei bakardadea prebenitu eta jorratzeko komunitatean dauden baliabideen berri ematen duten liburuxkak edo gidak banatzea, bakardade egoeran egon daitezkeen pertsonen informaziorako sarbidea errazteko.	Foru Aldundia Udalak
21. Eskola espezifiko moduan funtzionatzen duten espazioak sortzea bakardadeen esparruan, herritar guztiei irekita daudenak, kultur etxeetan edo udalerrietako eskoletan.	Udalak Kultur etxeetan Ikastetxeak
22. Familiekiko gizarte eta hezkuntza esku hartzeen eta esku hartze psikosozialen zerbitzuetako profesionalen espezializazioa bultzatzea, isolamendu sozial eta nahi gabeko bakardade egoeran dauden pertsonen orientazioa eta laguntza emateko prozesuen inguruan.	GFAREN Gizarte Politikako Departamentua Udalak
23. Prestakuntza, graduondoko edo espezializazio planak garatzea gizarte esku hartzearen arloko profesionalen kualifikazio espezifikoak lortzeko isolamendu sozial eta bakardade egoerei dagokienez.	Foru Aldundia Unibertsitateak
24. Lurraldean partaidetzako hausnarketa partekatua garatzea udalerrri interesdunen artean, Hariak Estrategiaren kontzeptu eta ezarpenak landa eremuetan aplikatzeko orduan hartzen dituen espezifikotasunen inguruan.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak ESlak Hezkuntza administrazioa Beste eragile batzuk

6.2.3.3. ibilbide estrategikoa. Berrikuntza eta zabaltzea

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
1. Hurbileko merkataritza establezimenduetatik bakardade egoerak antzemateko programa espezifikoak diseinatu eta garatzea, horrekin batera laguntza zerbitzuak edo jarduketak (sozialak, informatzaileak) eta loturak sortzekoak eskaini eta gauzatu.	Enpresak
2. Gipuzkoako adinekoen klubak eta zahar etxeen jarduerak indartzea, lehen, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioko taldekako esku hartze komunitarioko programei esker.	Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Adinberri Fundazioa
3. Bazterketa, babesgabetasun eta mendekotasun arriskuan dauden pertsonen zuzendutako Gizarte Zerbitzuen zorroko zentro eta zerbitzuak indartzea, duten estaldurari eta zuzkidurari dagokienez, eta baliabide hauetako profesionalen prestakuntzari dagokionez ere, arreta berezia jarrita autonomia sustatzeko programei eta mendekotasun arriskua duten pertsonentzako eguneko arreta zerbitzuei, bai eta helduen gizarte eta hezkuntza esku hartze programari ere.	Udalak Foru Aldundia
4. Intentsitate txikiko laguntza eta gizarte eta hezkuntza esku hartzerako programa espezifikoak garatzea etxeko laguntza zerbitzuaren, FIZPEren eta LPPEren erabiltzaileentzat.	Udalak Foru Aldundia
5. Gipuzkoako Hautxoko eta Gaztelekuen sarea indartzea, bertan lan egiten duten hezitzaileen kopurua areagotuz eta bertako profesionalak bakardadeak prebenitzeko eta jorrazeko prestakuntza espezifikoak emanez.	Udalak Foru Aldundia
6. Belaunaldi arteko programak garatzea, kulturaren, aisialdiaren, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen esparruan, loturak eta harremanak areagotzeko eta belaunaldien arteko distantzia murrizteko.	Udalak Foru Aldundia

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
7. 70 urtetik gorakoen gaikuntza digitalerako lantegiak antolatzea, batez ere eten digitala murriztea eta ingurune birtualak gizarte interakziorako eskaintzen dituen aukerak hobetzea helburu dutenak.	Udalak Foru Aldundia
8. Mentoretza, babesletza edo laguntza programak garatzea bakardade arrisku gehien duten kolektibo espezifikoentzat.	Udalak Foru Aldundia
9. Auzokoen sareak eta bizikidetza sareak dinamizatzeko eta indartzeko programak sustatzea.	Ayuntamientos Diputación Foral Entidades del Tercer Sector
10. Bakardadeak prebenitu eta jorratzeko programa espezifikoak sustatzea ekipamendu kulturaletan (kultur etxeak, liburutegiak eta antzekoak), kontuan hartuko dutenak baita ere genero-ikuspegia, belaunaldiartekotasuna, etab.	Ayuntamientos Diputación Foral
11. Denbora kreditu eta/edo denbora banku programak garatzea, arriskuko kolektiboetan pertsonen truke horietan parte hartzea erraztuz.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
12. Hiri espazio eta ekipamenduen erreformarako programa espezifiko bat ezartzea, genero-ikuspegiarekin, gizarte topaguneak sortzeko helburuarekin.	Udalak Foru Aldundia
13. Etxebizitzak eraldatzeko jarduketak garatzea bakardadeak arintzeko eta adinekoen autonomia areagotzeko helburuarekin, baita genero-ikuspegitik.	Udalak Etxebizitza departamentua edo zerbitzuak
14. Ostatatze solidarioko programak edo belaunaldi arteko bizikidetza programak garatzea etxebizitza partikularretan, adinekoentzat eta gazteentzat.	Udalak Foru Aldundia Adinberri Fundazioa

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
15. Garraio publikoa bultzatzeko plan espezifikoak ezartzea, landa eremua kontuan izanik, jarduera kultural, aisialdiko jarduera eta gizarte partaidetzako jardueretako sarbidea areagotzeko aukera gehien dituzten lineak eta ordutegiak identifikatu eta indartuz.	Udalak Foru Aldundia
16. Bakardade egoerak eragiten dituen familia sarerik eza ekar dezaketen familia haustura egoerak saihesteko edo loturak berreskuratzea sustatzeko familia bitartekaritzako programak bultzatu eta indartzea.	Udalak
17. Arreta pertsonarengan jartzen duten diagnostiko eta esku hartze tresna informatikoak diseinatu eta abiaraztea, erabiltzaileen parte hartzea bermatuz bai diagnostikoan eta baita esku hartze planen erabakietan ere, eta bakardadeei buruzko adierazleak jasoz ondorengo jarraipena egin ahal izateko.	Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
18. Elkarri laguntzeko, eztabaidatzeko edo gizarte interakziorako programak abian jartzea talde espezifikoaren artean (dolu fasean dauden emakumeak edo emakume alargunak, emakume zaintzaile ez formalak, iraupen luzeko gaixotasunak edo mugikortasun urria duten pertsonak, erretiro fasean dauden pertsonak, etab.), bakardadeak prebenitu eta jorratu ahal izateko.	Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak Saila (EJ) Osasun Saila (EJ) / Osakidetza / ESlaK Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
19. Egoitza baliabideetan bakardadea jorratzeko estrategia eta proiektuak modu espezifikoan garatzea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
20. Osasun mentaleko arazo larriak dituzten eta isolamendu edo bakardade egoeran dauden pertsonen zuzendutako Tratamendu Atertutako Komunitarioko programak bultzatzea.	Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
21. Koordinazio prozedurak (protokoloak), programak edo susperraldi eta/edo ospitale altako egoeretak izaera duten zentroak diseinatu eta garatzea, instituzionalizazioa prebenitzeko eta pertsonen beharrak joratzeko pertsonalizazioaren eta bizi kalitatearen ikuspuntutik.	Gipuzkoako ESlak
22. Gizarte zerbitzuetako zentro eta programetako erabiltzaileen partaidetza eta elkartetza sustatzeko planak diseinatu eta martxan jartzea, erabiltzaile hauek esku hartze planen, programen eta eragiten dituen politika publikoen erabakietan parte har dezaten.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
23. Gizarte partaidetzako boluntarioen programak sustatzea, hartara isolamendu sozial egoeran dauden eta/edo bakardade egoeran daudela sentitzen duten biztanleria taldeak baterako ekoizle bihurtuta eta kasuko programetako zerbitzuen eta/edo jardueren horniduran parte har dezaten lortuta.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
24. Gizarte trebetasunen, trebetasun afektiboen, autokudeaketarako trebetasunen eta jokabidea aldatzeko gaikuntza lantegiak garatu eta indartzea, bakardade arriskuan dauden pertsonen zuzendutakoak, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetan.	Udalak Foru Aldundia Osakidetza Hezkuntza administrazioa
25. Telefono bidezko laguntza programak sustatu eta zabaltzea bakarrik sentitzen diren adinekoentzat, informazio trukea eta harremanak sustatzeaz gain, elkarrizketak eta eduki emozionaleko harremanak ere ahalbidetzen dituztenak.	Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak
26. Befriending esku hartzeak garatzea, etxetik etxera bisiten bidez, etxetik kanpoko jardueretara lagunduz edo aldi behingo telefono deien bidez laguntza soziala edo konpainia eskaintzeko bakarrik bizi diren adineko pertsonen, batez ere, geografikoki isolatuta edo landa eremuetan bizi direnentzat.	Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
27. Etxez etxeko bisitak edo telefono deiak sustatu eta zabaltea informazioa emateko eta udalerrian dauden laguntza aukeren berri emateko 70 urtetik gorakoei, osasunaren edo gizarte zerbitzuen arloko profesionalen eskutik.	Udalak ESlak
28. Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta hobetzea, nahi gabeko bakardadea prebenitu eta jorratzeko xedearekin, barne hartuta harremanen eta sentimenduen inguruko edukiak dituzten zerbitzuak, ekintzak edo ekimenak.	Udalak
29. Bakardade egoera larrienak jorratzeko kasuen sektore arteko kudeaketa eredu bat diseinatu, aplikatu eta ebaluatzea, kasuak antzeman eta esku hartze komunitarioen bidez banakako bakardade egoerak murriztu ahal izateko, betiere kontuan hartuta pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta lehentasunak.	Udalak Foru Aldundia
30. Bigarren hezkuntzako esparruan bakardadeei aurre egiteko diagnostiko eta esku hartze eredu bat diseinatu, aplikatu eta ebaluatzea, genero ikuspegiarekin baita ere.	Ikastetxeak eta hezkuntza administrazioa
31. Jarduera kultural eta aisialdiko jardueretarako sarbidea ahalbidetzen duten programak sustatzea, kostuaren zati bat baterako moduan finantzatuz (kultura bonoak). Programa hauek bereziki zuzenduko zaizkie bakardade arrisku handiena duten kolektiboak.	Udalak Foru Aldundia
32. Euskara sustatzeko programak eta jarduerak diseinatzea eta bultzatzea, belaunaldiaren artekoak ere izan daitezkeenak, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko eta topaguneak garatzeko, bereziki, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzako (adinekoak, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak, etab.).	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
33. Gizarte- eta kultura-arloko eta gizarte- eta hezkuntza-arloko profesionalen zuzkidurak eta funtzioak handitzea mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako zentroetan	Udalak Foru Aldundia

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
34. Landa-eremuan identifikatutako bakardadeen aurrean esku hartzeko programa espezifikoak abian jartzea, eremu zehatzetan esku hartzen duten hezkuntza-arloko talde espezifiko bidez	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak
35. Garraio-neurriak bultzatzea eta indartzea, hala nola taxi-bonuaren zerbitzuak, landa-eremuan bizi diren eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat	Udalak
36. Garraio komunitarioko lineak edo hurbileko auzoen arteko garraioak garatzea udalerrri handienetan, modu horretan jarduera kulturaletarako, aisialdiko jardueretarako eta gizarte partaidetzarako aukerak areagotuz, bai eta, oro har, baliabide komunitario guztietarako sarbidea ere.	Foru Aldundia Udalak
37. Landa-inguruneetan bakardadeen aurrean politikak sektore artean integratzeko gida bat egitea	Foru Aldundia
38. Bakardade-egoerak detektatzeko eta diagnostikatzeko tresnak diseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea, besteak beste, Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuetan eta Lehen Mailako Arretako eta Osasun Ospitaleko Zerbitzuetan, generoaren, landa-eremuaren eta abarren aldagaiak kontuan hartuta	GFaren Gizarte Politikako Departamentua Adinberri Fundazioa Udalak Osakidetza
39. Telelaguntza aurreratuaren barruan erabilgarritasun interaktiboak esperimintatzea, garatzea, inplementatzea eta eskalatzea, zerbitzu honek bakardade-egoerei dagokienez erabiltzaileen – beraien etxean egonda edo ez- harremanak errazteko egin ditzakeen ekarpen gisa	Eusko Jaurlaritza
40. Telelaguntza-zerbitzuaren bidez, adimen artifizialak pertsonen egoera emozionala monitorizatzeko eta ebaluatzeko duen gaitasuna esperimintatzea eta ebaluatzea, bakardade-egoerak detektatzeko eta horiei aurre egiteko erabil daitezkeen baloratzeko	Eusko Jaurlaritza
41. Telelaguntza-zerbitzuaren birtualtasunak aztertzea, erabiltzaileen sareak eta komunitateak sortzeko	Eusko Jaurlaritza

6.2.4.4. ibilbide estrategikoa. Ebaluazioa eta ezagutza

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
1. Kolektibo espezifikoaren (LGTBI kolektiboa, familia zaintzaileak, migratzaileak, zaurgarritasun egoeran dauden adin oso handiko bikoteak, emakumeak-gizonak, etab.) bakardadeen aurreko egoerari buruzko ikerketak gauzatzea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
2. Bakardadeen inpaktu ekonomikoari buruzko ikerketak egitea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
3. Bakardadeek kolektibo jakinen (adineko pertsonak, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak, gazteak, emakumeak, etab.) egoera mentalean duen inpaktuari buruzko ikerketak egitea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
4. Bakardadeek landa-inguruneetan bizi diren pertsonen osasun-egoeran duten eraginari buruzko ikerketak egitea	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
5. Kognizio sozialaren eta bakardadearen arteko erlazioari buruzko ikerketa espezifikoak egitea, eta kognizio sozialaren aldaketarekin lotutako esku hartzeen eraginkortasunari buruz dagoen ebidentziaren inguruko ikerketak ere bai.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
6. Eskualdeetan aldian behingo diagnostikoak egitea bakardadearen prebalentziaren inguruan eta bakardade egoerekin lotura gehien duten profilen egoeraren inguruan.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
7. Bakardadeek egoitzetan duten inpaktuaren eta bakardadearen inpaktua murrizteko eta desinstituzionalizazioa lortzeko neurri eraginkorrenen inguruko ikerketak egitea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza

Gomendioak eta gidalerroak	Erakunde interesdun edo sustatzaileak
8. Pandemiak eta COVIDaren inguruko murrizketek zahartzaro osasuntsuaren dimentsio guztietan eta egoitzetako bakardadean izan duten inpaktuari buruzko ikerketak egitea.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
9. Bakardade mota bakoitzaren (soziala, emozionala, kronikoa...) intzidentzia neurtzen duten elementuak txertatzea egiten diren ikerketa eta diagnostikoetan, bakardade mota bakoitzarekin lotutako faktore eta egoeretan are gehiago sakontzeko.	Udalak Foru Aldundia Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
10. Bakarrik sentitzen diren pertsonen erabiltzen dituzten aurre egiteko estrategiei buruzko ikerketak egitea, garatuko diren esku hartzeen plangintza eraginkorragoa lortzeko xedearekin.	Foru Aldundia Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Osakidetza
11. Hariak Estrategiaren egikaritzearen eta Udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasun teknikarien lanaren artean sustatu daitezkeen sinergiak identifikatzea.	Foru Aldundia Udalak
12. Hariak strategiaren genero-eraginari buruzko ebaluazio espezifikoak egitea	Foru Aldundia
13. Hariak strategiak landa-inguruneetan duen eraginari buruzko ebaluazio espezifikoak egitea	Foru Aldundia
14. Hezkuntza sisteman inkestak egitea haurtzaroko eta nerabezaroko bakardade adierazleak barne hartuta.	Ikastetxeak eta hezkuntza administrazioa
15. Bakardadeen jorratzeari lotutako zerbitzu, programa edo proiektuetako arretaren kalitate estandarrak ezartzea, horiei esker bakardadearen prebalentziari eta motari buruzko adierazleak jaso ahal izateko (Jong Gierveld eta/edo UCLA eskalak).	Adinberri Fundazioa Erakunde zerbitzu emailak